

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Alkatearen eginkizunak lehen alkateordearen esku uztea aldi baterako

Alkateak, 2019ko uztailaren 30eko dekretu bidez, ebazpen hau eman du:

2019ko abuztuaren 18tik abuztuaren 28ra bitartean (biak barne) Aguraingo udalerritik kanpo egongo naiz.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3. artikuluan eta Toki Korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 44.1, 44.2, 47.1, 47.2 eta 48. artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuz, honako hau

Ebazten dut:

1/ Rubén Ruiz de Eguino López de Guereñu lehen alkateordearen esku uztea alkatearen eginkizunak udalerritik kanpo egongo naizen aldian ordeztu nazan, hau da 2019ko abuztuaren 18tik abuztuaren 28ra bitartean, bi egun horiek barne.

2/ Dekretu hau ALHAOn argitara dadila eta haren berri eman dakiola Udalbatzari, haren hurrengo bilkuran.

Agurain, 2019ko uztailaren 30a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES